



II. ATALA TXILLARDEGIRI ESKAINITAKO LANAK

>>>

13

HIZKUNTZA ALDAKETA BIKOTEEN HARREMANEAN: IKUSPEGI TEORIKOA ETA IKERKETAREN ONDORIOAK

Pello Jauregi Etxaniz

EHUko irakaslea

Helbide elektronikoa: pello.jauregi@ehu.es

Pablo Suberbiola Unanue

Soziolinguistika Klusterreko teknikaria

Helbide elektronikoa: pablo@soziolinguistika.org

Artikulu honetan hizkuntza ohituren eratzeaz, mantentzeaz... eta aldatzeaz idatzi dugu. Hori idazteko garaian, soziolinguistika ez diren beste zientzia diziplinetako hainbat ikerlariren lanak erabili ditugu: psikologoak kasu batzuetan, biologoak besteetan... Lehenago ere euskararen aldeko lanetan, beste diziplinetako ezagutza teknikoak ekartzetik urrats berri politak eman izan dira. Txillardegiren Eredu matematikoa izan da horietako bat gure ustez: euskaldunen "lehialtasun eza" oso bestelako modu batean ikusteko aukera zabaldu zuena.

Pozgarria da guretzat hemen argitaratzen dugun lantxo hau Txillardegiren omenez osaturiko ale berezi honetan izatea, eta baliatzen dugu aukera bere ibilbidean eskaini duen lanagatik eta ezagutzagatik gure esker ona adierazteko!

ALDAKETEN AZTERKETARAKO OINARRI TEORIKOA

Berriki izan dugu hainbat Euskal Herrietako bikoteen hizkuntza jokaerak aztertzeo aukera paregabea. Bikote hauek guztiek bazuten ezaugarri bereizgarri bat: beren arteko harremanaren ibilbidean inoiz hizkuntzazko

errotiko aldaketa abiatu izana, halako gisan non harremanaren hasieran, elkar ezagutzean, gaztelania erabiltzen bazuten ere, egun, eta prozesu baten ondorioz, euskaraz jarduteko ohitura eskuratuta baitute.

Lehenengo lerro hauetan hurbilpen teoriko xume bati helduko diogu, azterketa bideratzeko beharrezko izan zitzaizkigun hainbat oinarriko kontzeptu aurkezteagatik.

Joera handia badago ere fenomeno korapilatsuak beren osagai xumeetan berezi, banatu eta aztertzeke, nahi izan dugu guk gurean, ahal izan dugun neurrian behinik behin, *osotasunari eta korapilotasunari begirunea gordetzea*. Geure egin dugu Psikologia Sozialaren oinarriko axioma bat, honakoa dioena: “osotasuna, osagaien batuketa hutsa baino gehiago da” (Lewin 1988). Axioma horri darion ikuspegi sistemikotik abiatuta ezin izango genuke bikote bat ulertu bi gizabanakoren batuketa gisan. Erraz ikusten da hori. Ingurura begiratzea besterik ez dugu egin behar konturatzeko, esaterako, ez dela beti eta ezinbestean nortasun handiko bikotea ageri, hura osatzen duten bi kideak aldi berean nortasun handikoak izate hutsagatik. Kontrakoa dugu, ordea, ohikoagoa, hots, oilarrak elkarrekiko mokoka nola, hala kide indartsu biek talkan eta borrokan jardun ohi dute, nor baino nor den gehiago erakutsi nahi sukartsuan. Horren emaitza ez da talde indartsu bat, talde ahul eta liskartsua baizik. Beraz, bi gehi bi ez dira lau beti giza sistemetan.

Funtsezko egiten zaigu orduan kideen arteko dinamika edo *elkarrekintza* sumatzea jakiteko zer ezaugarri dauden taldeetako muinean sistema osoari nortasun berezia emanez. Izan ere, kideak nola ematen zaizkion elkarri, nola uztartzen den bata bestearekin, zein den elkarrekin egiten duten dantzaren erritmoa, hori guztia daukagu beste edozer baino lehenago ezagutu beharra. Sistemaren ezaugarria, bada, kideek ahalbideratzen duten elkarrekintzan datza. Elkarrekintza dugu kontzeptu nagusia. Elkarrekintzak sorturiko emaitzak mugatuko du kideen jokaera, eta hala kideen ezaugarri eta joera batzuk azalaraziko dituen bezala ezkutaziko ditu beste batzuk. Kide baten jokaera ezin da ulertu bereari bakarrik begiratuta, jokaera beti kontestualizatuta izaten baita. Norbere jokaerak beti du berekin elkarrekintzan kide ditugunen arrasto eta aztarnarik. Gendlinek beldurrik gabe baieztatzen du elkarrekintza dugula aurrena, are kide bakoitzaren jokaera agertu baino lehenago ere (Gendlin 1999).

Gizakiok osatzen ditugun sistemetan, bai txikietan (bikote bat), bai ertaintetan (erakunde bat), bai handietan (herri bat), ezin dira behar bezala ulertu bertan ematen diren joku eta elkarrekintzak *sentimenari lotutako alderdiak* serio aintzat hartu gabe. *Zirrarak eta sentipenak* barne-sentipen pertsonal gisa ulertu ohi dira. Eta ezin da ukatu zirrarak eta sentipenak badirela norbere gorputzean eta gogoan sumatzen diren bizipen nabarmenak. Baina hortik haruntzago, zirrarak eta sentipenek funtsezko egitekoa dute gizakion arteko harremanak erregulatzeko (Maturana 1996). Inor haserretzen denean ez genuke hori norbere fenomeno hutsa

Joera handia badago ere fenomeno korapilatsuak beren osagai xumeetan berezi, banatu eta aztertzeke, nahi izan dugu guk gurean, ahal izan dugun neurrian behinik behin, osotasunari eta korapilotasunari begirunea gordetzea. Geure egin dugu Psikologia Sozialaren oinarriko axioma bat, honakoa dioena: “osotasuna, osagaien batuketa hutsa baino gehiago da”.

Gizakiok osatzen ditugun sistemetan, bai txikietan (bikote bat), bai ertainetan (erakunde bat), bai handietan (herri bat), ezin dira behar bezala ulertu bertan ematen diren joku eta elkarrekintzak sentimenari lotutako alderdiak serio aintzat hartu gabe.

bailitzan hartu behar, ohartuki edo oharkabean bada ere, inguruarekiko harreman ugari ari baitira dantzan haserre horren kontura. Haserretzean geure barne-eragina adierazteaz gain besteen jokaeran eragiteko asmo garbia dugu gehienetan: zer balio du haserretzeak, solaskidea geure nahira makurraraztea ez bada?, Norbaiti sinpatia edo maitasuna adierazterakoan ari gara, aldi berean, erakusten gure ondoan onartzen dugula, gurekin egon dadila nahi dugula, atsegin dugula harekin egotea. Pertsona bat triste dagoenean, gogoeta mota batzuk datozkio gogora eta ez beste batzuk, ingurukoekin modu jakin batez jokutzen du eta ez beste modu batez, eta inguruko lagunek gauza batzuk esango dizkiote eta ez beste batzuk. Zirraren eta sentipenek indar orokortzaile ikaragarria dute giza-kiongan, halako moldez non gure organismo osoa —jokaera, gogoeta, hizketa moldea, gorpuzkera, e.a.— lerratzen baitu orain norabide batean orain bestean. Oso bizia da, alditan, hauen oldarra. Xumeagoa bestetan. Baina beti gabiltza azpiko gidoi emozional baten dantzan. Ez gutxitan, arrazoiak eta logikarik zorrotzena erabilia ere, zirrara batzuei jantzia ematen, edota ezkututzen ere beste zereginetan ez gabiltza. Zirraren dantza ez da arbitrarioa. Haien agerpena eta garapena lotuta ageri zaio kideen arteko harremanaren erregulazioari.

Oinarri emozionalaren gainetik eraikitzen da *geruza arrazionala*: hitzak, arrazoiak, ideiak, usteak, argudioak... Hitzaren eremuak berekin ere du, mekanismo emozionalak bezala, harremanak erregulatzeko ahalmena. Hari eskerrak erregulazio fina, eta nabarduraz betetakoa sortzen dugu gure harremanetan. Gure harremanak, nolabait esatearren, elkarriketa bihurtzen dira, hitzak nagusi bilakatzen dira gure bultzada emozionalak adierazteko. Hitzak eta emozioak, zirrarak eta eleak, biak ala biak uztartzen dira gure elkarriketan, elkarri eraginez. Bi sistemak batera ari zaizkigu etengabe. Arrazionala agerikoa den bezala, emozionala gehienetan ezkutuan eta era implizituan ari zaigu. Sistema arrazionalak ez dira beren baitan zutik, oinarrian beti baitituzte axioma batzuk arrazoiari oinarritutakoak ez-baina zirraren eta sentipenen eremutik etorritako lehentasunetan altxatzen direnak. Zergatik aukeratzen ditugu oinarritzko eskubide batzuk eta ez beste batzuk gure elkarbizitzarako? Hautu horiek egiten ditugu gogoak hala ematen digulako, hala bizitzeak dakartzan ondorioak gogoko ditugulako eta ez bestegatik. Zirraren eta sentipenetik datorkigun bultzadatik aukeratzen ditugu ildo nagusiak. Burua eta gaitasun intelektual guztiak erabiliko ditugu gero hautuok arrazoiz eta argudioz janzteko.

Hala bada, giza sistema bat arakatu nahi dugunean, kideen elkarriketak entzun behar dira, nolako elkarriketa motak egiten dituzten aintzat hartuta. Hitzak gogoan hartzeak dira jakina, baina ez beraiengatik soilik, baizik eta, batez ere, kideen zirraren mugimenduaren berri ematen digutelako. Zirraren sakoneko eremuan aurkituko ditugu sistemaren oinarriak, axiomak eta hastapenak.

Elkarrekintza kontzeptuak dantza etengabearen itxura ematen digu, zerbait beti aldakorra bailitzan, baina fenomeno sistemikoetan beti ikusten dira erregularutasun batzuk, behin eta berriz ematen diren jokaerak, bide jakin batzuk lehenesten diren bezala beste batzuk zokoratzen dira. Hitz batez esanda: badute sistemek *egitura finkoa*. Elkarrekintzaren dinamikak berak, bere egite horretan, egitura finko samarrak sortzen ditu (De Bono 1996). Sistema batean egon daitezkeen aukera guzi-guziak ez dira era berean gauzatzen; aitzitik hierarkia bat sortzen da, non harreman mota batzuk lehenetsiko diren, beste batzuk osagarri gisa agertuko diren, eta baita beste batzuk zokoratuta geldituko diren. Hala bada, elkarrekintzaren joan-etorri askeak zerbait lotua sortu ohi du: egitura bat alegia. Egiturak zehazten du zer alderdiek duten sistemarako garrantzia gehiago eta gutxiago. Egitura bera elementu baloratzaille bihurtzen zaigu. Egiturak antolamendua eta ordena ematen dizkio sistema bati, eta horri eskerrak emankortasuna eta energiaren aprobetxamendua. Eremu batean dauden osagai guztiek beren arteko elkarrekintzan une jakin batean eta baldintza jakin batzuetan eman dezaketen emaitzarik egokiena horixe dugu egitura. Kideen beharrak asebetetzen dituen neurrian egonkorra da egitura bat, baina ezegonkorra baldintza horren ezean. Sistema egonkorrek, jakina, dute irauteko joera, eta bere burua babesteko bultzada argia. Baldintza berberak ematen diren bitartean bide berera joko du beti sistema barruko elkarrekintzak. Ildo hori gero eta sakonago egiten da eguneroko jarduera dela medio. Gero eta errazago ibiltzen gara lehendik ibilitako bideetan barrena ibiliz gero. Gero eta indar handiagoz erakartzen ditu horrek bazterretan egon daitezkeen jario guztiak. Egonkor den sistema batek ez du bere burua aldatzeko inongo beharrik, ez barne beharrik behinik behin. Ohitura bat, edozein dela ere, hizkuntza ohitura barne, harreman eremu bateko egituratzat har genezake zalantzarik gabe.

Egonkortasunak une jakin batez hitz egiten digu. Iraunkortasunak, ordea, denboran zehar hedatzen den egonkortasuna dakarkigu gogora. Sistema baten sorrera ahalbideratu zituzten baldintza berak behin eta berririo eman behar dira denboran zehar sistema horrek iraungo badu. Eta ez da hori beti gertatzen. Baldintzak aldakorrek dira, bizitza bezala. Jarduera aktiboa erakutsiko du giza sistema batek bere horretan irauteko behar dituen baldintza egokien bila arituz. *Homeostasia* kontzeptua da berau. Barne orekari eusteko baldintza egokiak bilatuz organismo batek (eta bikote bat organismotzat hartzen dugu) egiten dituen ekintzak adieraziko luke homeostasia kontzeptuak. Homeostasiaren bidez organismo batek bere oreka bilatzen du, bere ongizatea, bere egituraren eta antolaketa iraunaraztea, hitz batez, bere buruaren babesa den bezala izan ahal izateko. Hemendik sortzen da, xume-xume baina oinarri eta sakon, sistema orok duen irizpide baloratzaille bitarikoa: batetik, sistema elikatzen duena ontzat hartzen da, harekiko grina, aldektasun eta bai-aldea erakutsiz, eta bestaldetik, baztertu, errefusatu eta gaitzetsi egiten da sis-

Oinarri emozionalaren ginetik eraikitzen da geruza arrazionala: hitzak, arrazioak, ideiak, usteak, argudioak... Hitzaren eremuak berekin ere du, mekanismo emozionalak bezala, harremanak erregulatzeko ahalmena.

Zirraren sakoneko eremuan aurkituko ditugu sistemaren oinarriak, axiomak eta hastapenak.

Badute sistemek egitura finkoa.

Sistema batean egon daitezkeen aukera guziguziak ez dira era berean gauzatzen; aitzitik hierarkia bat sortzen da, non harreman mota batzuk lehenetsiko diren, beste batzuk osagarri gisa agertuko diren, eta baita beste batzuk zokoratuta geldituko diren.

temari kalte egiten diolako sumatzen den kontu oro. Horretan kokatzen da zirraren zeregin baloratzailerak: bai/ez, gogoko/ez gogoko, alde/aurka. Homeostasiak bai-egoera dakarkio organismoari, besteak beste sistemaren funtzionamendu egokia, erosotasuna, erraztasuna eta emankortasuna.

Sistemek bere baitan itxiz eta muga batzuk finkatuz, lortu ohi dute beren burua babestea (Maturana 1999). Sistema bere baitan biribiltzen da, bere baitan ixten eta babesten da. Halako babesik gabe erraz desitxura baitezakete kanpoko baldintza arrotzek sistema baten modu berezia, are erabat desagerrarazi arte ere. Esan genezake sistema bat sortu, ixten denean sortzen dela, zeren orduan baldintza jakin batzuk behin eta berriro emateko aukera sortu baita. Egoera hori babestu eta irauarazi behar da sistema bera den horretan aurrerantzean ere izan dadin. Ixte hori, hala ere, normalean ez da erabatekoa edo hermetikoa, dinamikoa baizik. Sistema bizidunek ezin dute ingurutik zeharo isolatua jardun. Beharrezko dute kanpoarekiko elkar trukaketa. Hainbat eta hainbat gauza kanpotik hartzen dira barne-prozesuetan erabiltzeko. Barne-prozesu batzuek, era berean, kanpora bidea hartzen dute. Kanpoaren eta barruaren arteko trukea egonik ere, ez da horratik mugagabe eta neurrigabea. Truke mugatua da, arautua nolabait esatearren. Sistemaren barne-beharrek, homeostasiak aginduta, mugatzen dute trukearen nolakoa eta zenbatekoa.

Maturanak biologiatik hitz egiten digu azpimarratuz organismoaren eta ingurumenaren arteko egiturazko koherentzia gorde behar dela. Nolabait esatearren, organismoa den sistema, inguruarekin dituen egiturazko harremanetan beste sistema zabalago baten barruan dagoela. Sistema baten biziraupena ez dago bakarrik bere barruko egoeraren baitan: gertuko inguruaren baldintzekiko koherentzien iraupenaren baitan ere badago. Organismo osasuntsu batek ezingo luke luzaro bizi baldin eta ingurutik arnasten duen airea plomoz eta bestelako metal astunez beteta balego, istripu baten ondorioz kasu. Era berean, ezin eutsi bizitzari, bere koherentziari, minbiziak jota dagoen organismoak, nahiz eta ingurune osasuntsu batean bizi. Euskaraz jardun ohi duen bikote elebidunak nekez irau dezake koherentzia horretan, ingurunean harreman ugari, estu eta bazterrezinak badituzte erdalgile elebakarrekin. **Sistemak sistema barruan** daude, bata bestearen barruan diren egurrezko panpina errusiar ezagunak bezalaxe. Oinarritzko sistemak beste oinarritzko sistemekin elkarrekintzan jardunez ertaineko sistemak osatzen dituzte, aurrekoak baino zabalagoak eta korapilatsuagoak, eta hauek ere, beren artean elkar lotuz, sistema handi luze zabalak sortzen dituzte. Bikoteak ere, sistema bezala hartuta, beste sistema zabalagoen eraginpean daude. Sistemen arteko harreman dinamiko horiek direla eta, ikuskizun dago handiaren eta txikiaren indarrak nola egokitzen zaizkion elkarri. Fenomeno soziologikoen logikak dio sistema handiek dutela sistema txikiak baino indar gehiago beren koherentzietara makurrarazteko. Eta hala da, seguru asko,

hainbat eta hainbat kasutan. Ezin da, ordea, sistema txikien indarra gutxietsi ere. Gogoan har dezagun, sinbolo bezala, nolako indar erabakitzalea izan dezakeen harri koxkor xume batek engranaje handi eta korapilatsu baten funtzionamenduan: baldin toki berezian kokatuta balego, makinaria osoa gelditzeraino irits baitaiteke.

Sistema baten ezaugarriak ikusita bere aldaketarako aukerak ere begirada berean datozkigu. Watzlawick psikologoak, ikuspegi sistemiko batek arituta, bi aldaketa mota bereizi izan ditu sistema baten funtzionamenduan (Watzlawick, Weakland, eta Fisch, 1985). *Aldaketa 1* izenaz aditzera eman zituen sistema baten aldaketa homeostatikoak, hots, organismo edo sistema batek egiten dituen mugimenduak eta egokipenak funtsean sistemak bere horretan irauteko, bere egiturari eusteko, bere oreka berreskuratzeke. Aldaketak, funtsean, sistema ez aldatzeko, alegia lehengo bidetik jarraitzeko. Haren ondoan, *Aldaketa 2* kontzeptua gorde zuen sistema batean ematen diren egiturazko aldaketak adierazteko. Orain sistemaren baldintzak aldatu dira. Horrelako aldaketen jatorria ez da beti berdina: agian barruan aldatu, agian kanpoan, beharbada bietan batera. Edonola ere, baldintza berrietara egokitu beharrak askatu egiten du elkarrekintza molde zaharretatik, hots, lehenengo egitura eta ohitura ez da jada erabilgarria, ez zaio ongi egokitzen egoera berriari. Ohitura edo egitura berria erai ki behar da orain ezinbestean baldintza berrietara egokitzeko.

Ikerketa honetan hainbat eta hainbat bikotek egindako hizkuntza harremanen berregituratze sakona aztertu ahal izan dugu, hain zuzen ere egunero jardunean nola burutu dituzten *aldaketa 2* deritzan prozesua. Barneko eremu emozionaletik sorturiko prozesuak bezala, kanpotik eragindakoak ere ikusteko parada izan dugu. Baita bien nahasketatzat har daitezkeenak ere.

EGINDAKO IKERKETA ETA ONDORIOAK

2008. urtean Soziolinguistika Klusterrak Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarentzat *Bikoteen artean hizkuntza ohituren aldaketa ikerketa-lana* egin zuen. Lan horretan, beren harremaneko *hizkuntza-ohitura aldatu duten* EAEko *bikoteak* aztertu ziren: beren kasuak gertutik ezagutu, beraiengandik ikasi eta aldaketa prozesu horien gakoak zein diren sakonetik ezagutzen saiatu. Ondorengo lerroetan ikerketaren ondorioen laburpen bat eskaintzen da.

Bi ziren ikerketa honen helburu nagusiak:

- 1) *Hizkuntza ohitura aldaketaren* fenomeno sakonetik ezagutu eta ulertzea, bikote harremanaren eta familia bidezko hizkuntza transmisioaren testuinguruan.
- 2) EAEn beren arteko harremaneko hizkuntza *gaztelaniatik euskarara aldatu* duten bikoteen kasuen sailkapen bat eskuratzea.

Egonkor den sistema batek ez du bere burua aldatzeko inongo beharrik.

Jarduera aktiboa erakutsiko du giza sistema batek bere horretan irauteko behar dituen baldintza egokien bila arituz. Homeostasia kontzeptua da berau.

Oinarrizko sistemak beste oinarrizko sistemekin elkarrekintzan jardunez ertaineko sistemak osatzen dituzte, aurrekoak baino zabalagoak eta korapilatsuagoak, eta hauek ere, beren artean elkar lotuz, sistema handi luze zabalak sortzen dituzte. Bikoteak ere, sistema bezala hartuta, beste sistema zabalagoen eraginpean daude.

Helburu horiekin, Euskal Autonomi Erkidego osoko bikoteak aztertu ziren, erkidegoko ezaugarri soziolinguistiko zein geografikoen aldetik bertako aniztasun osoa jaso zuen udalerrien hautaketa batetik abiatuz. Guztira 27 bikoteren kasuak ikertu ziren¹.

Aztertutako bikoteek ezaugarri bat zuten komunean: *aldaketa* bat eman izana bikoteko kideen arteko *ohiko hizkuntzan*. Lehen beraien arteko harremana erabat edo nagusiki gaztelaniaz zen, eta *aldaketa* baten ondoren, beraien arteko harremana erabat edo nagusiki euskaraz izatera pasa zen. Hori, eta herrien hautaketa izan ziren bikoteak kontaktatzeko irizpideak. Hortik aurrera ez zen bestelako mugarik jarri: ez adin aldetik, ez eta bikotekideen lehen hizkuntza aldetik edota gaur egun euskaraz duten gaitasunaren aldetik ere: soilik *hizkuntza aldaketa* egin izana.

Ikerketan erabilitako oinarri teorikoaren osagai nagusiak artikulua-ren lehen zatian azaldutakoak dira. Pello Jauregi EHUko irakasleak hizkuntza ohituraren aldaketari buruz urtetan eginiko ikerketak daude, besteak beste, guztiaren oinarrian: bai doktore tesian landutakoak eta baita Kuadrillategi egitasmoaren baitan mamitutakoak ere.

Ikuspegi teoriko horren erdigunean daude, besteak beste, *taldekotasun printzipioa*, *osotasunaren printzipioa* eta *ikuspegi kolektiboa*. Bikoteak izan ditugu aztergai ikerketan, eta bikotea talde bezala aztertu dugu, ez bi banakoren batuketara bat bezala. Bi banakoren batuketa “gehi” harremantzeko modu jakin bat, izaera propio bat, duen egituratzat hartu dugu bikote bakoitza. Hain zuzen, harremantzeko modu berezi horrek ematen dio talde bakoitzari bere nortasuna. Alde horretatik, bikoteak *talde* gisa aztertu ditugu, eta talde horien bilakaera aztertzeko *ikuspegi sistemikoa* erabili dugu: hau da, talde horiek *eremu sistemikoak* dira, bere ingurunea, bere nortasuna eta bere orden jakina dutenak, eta orden horretan *arautuak* daude nolabait kide bakoitzaren posizioak, rolak eta egitekoak.

Hizkuntzaren erabilera aztergai delarik, talde baten *harremantzeko modu* edo nortasun hori oso kontuan hartzeko elementua da, hizkuntza jokaera bera, kideen arteko harremanari dagokion zerbait baita, harremanaren eremuan kokatzen dena. Harremanen eguneroko gorabeherak erregulatzeko eta kudeatzeko erabiltzen dugu, besteak beste.

Gutako bakoitzak, bestalde, parte hartzen dugun taldeetan, gure hizkuntza jarduera *egokitu* egiten dugu talde horren dinamikara eta arauetara. Ondorioz, azterketaren azpimarra ez dugu jarri bikotekide horien ezaugarri indibidualetan; aitzitik, talde gisa bikote bakoitzak garatu duen harreman-mota edo *izaera* ezagutzea bilatu da —hizkuntza erabilerari dagokionez, beti ere—, eta izaera horretan *nola eman den* *aldaketa* prozesua: nola garatu den kasu bakoitzean harremaneko ohiko hizkuntza aldatzera eraman dituen dinamika.

HIZKUNTZA OHITURA ALDAKETARI BURUZKO “GAKO”AK

Gorago esan dugu ikerketak bi helburu izan dituela, horietatik lehena hizkuntza ohitura aldaketaren fenomenoak sakonetik ezagutu eta ulertzea izanik. Fenomenoari buruzko ezagutza eta ulermen hau gakoetan laburtu dugu. Lau ataletan berezi ditugu gako hauek ikerketan:

- Batetik *gako orokorrak*, azterturiko fenomenoan ikuspegi orokor batetik nabarmendu ditzakegun irakaspenak.
- Bestetik, azterturiko bikoteek egindako prozesuei hurbilagotik erreparatu, hiru alderdi berezi ditugu:
 - *Motiboak* batetik, zergatiak. Bikote hauek beren artean finkatuta zuten gaztelaniaz egiteko ohitura *zer dela eta* hasi ziren aldatzen aztertu eta laburtu da.
 - Horrekin batera, *zailtasunak*. Aldaketa prozesu hauek aurrera ateratzeko bikote hauek nabarmendu dituzten zailtasunak aztertu dira.
 - Eta azkenik, eta ez justu garrantzia gutxien dutelako, prozesu hauetan erabili dituzten *estrategiak*. Aztertutako bikoteek beren hizkuntza aldatzeko nahia praktikara eramatea lortu dute (beste batzuk agian ez). Bikote hauetako kideak moldatu dira nolabait, aldaketa prozesuan topatu dituzten zailtasunak gainditzeko. Estrategia hauek ere aztertu dira ikerketan.

Aipatutako lau atal hauetan ikerketan jaso diren gako *guztiak* ez dira, noski, bikote hauen prozesu *guztietan* gertatu. Kasu bakoitzean gako horien konbinaketa ezberdina izan da, partikularra. Baina gako bezala deskribatu ditugun hauetako asko errepikatu egiten dira, ñabardura batekin edo bestearekin, aztergai izan ditugun bikoteen kasuetan. Eta beraz, pentsa izatekoa da, antzeko prozesuak aurrera eramaten dituzten beste bikote batzuetan ere gako hauetako asko errepikatu egingo direla modu batean edo bestean.

Esan bezala, ikerketaren ondorioak aipatutako lau multzo horietan bildu dira, baina artikuluan honetan guztia azaltzerik ez dugunez, *gako orokorrak* soilik aztertuko ditugu, gako orokor horietako bost hain zuzen (informazio zabalagoa nahi duenak Soziolinguistika Klusterrera edo Eusko Jaurlaritzako HPSra jo dezake).

1. Aldaketa handiak, motibo handiak

Pertsona batek bere bikotearekin duen harremanaren hizkuntza aldatzeko badu pisu bat bere bizitzan, ez da azaleko kontu bat. Hasteko, hizkuntza bera harremanaren “erdian” dago. Eta, harreman horrek —bikotea

Ikuspegi sistemiko batetik arituta, bi aldaketa mota berezi izan ditu sistema baten funtzionamenduan. Aldaketa 1 sistema baten aldaketa homeostatikoak, hots, organismo edo sistema batek egiten dituen mugimenduak eta egokipenak funtsean sistemak bere horretan irauteko. Aldaketa 2 sistema batean ematen diren egiturazko aldaketak.

2008. urtean
Soziolinguistika
Klusterrak Eusko
Jaurlaritzako Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzarentzat
Bikoteen artean
hizkuntza ohituren
aldaketa ikerketa-lana
egin zuen.

den aldetik— norbere bizitzaren zati handi bat hartzen du. Horrela, harreman horretan hizkuntza aldatzeak norbere bizitzaren parte garrantzitsu bat aldatzea suposatzen du.

Ikertutako bikoteetan, beren bizitzako alderdi garrantzitsu hori aldatzeko arrazoi “garrantzitsu” ak egon dira tartean, kideetako batentzat edo bientzat garrantzia handikoak zirenak: nahi handi bat, behar bat, “horrela jarraitu ezin” bat, aipatutakoen konbinaketa bat... Bikote bakoitzean arrazoi hauen konbinaketa ezberdina izan da, baina oro har aldaketa egitea ez da bolada bateko kapritxoa edo anekdota izan.

Gero, hori bai, arrazoi, behar, nahi... dena delako horien garapenak forma ezberdinak hartu ditu kasu bakoitzean: batzuetan hasieratik aldatzeko nahia oso handia zen, eta beste batzuetan berriz “jakinminez” edo “giroagatik” hasi ziren euskara ikasten, eta gerora bikoteko harremanean hizkuntza aldatzeko nahia gorputza hartzen joan zen.

Denbora aldetik ere, kasuistika zabala da. Aztertutako aldaketa batzuk hilabete gutxitan gertatu ziren, beste batzuk berriz urte batzuk behar izan dituzte. Baina denboran laburrak edo luzeagoak izan, ondorio orokor bat da beren bizitzaren alderdi garrantzitsu hau aldatzean, bikotekide hauen- ztat garrantzitsuak ziren motiboak egon direla prozesuan zehar.

2. Erabilera etorri da erabiltzetik

Ikertutako bikoteetan, kideek harremana hasi zutenean —elkar ezagutu zutenean— gehienetan ez zen posible harremana euskaraz izatea, bieta-ko batek edo biek euskara ez zekitelako (hiru kasutatik bitan). Ondorioz, aldaketa emateaz gain, kasu gehienetan kide bat edo biak euskara ikaste- an joatea ere gertatu da prozesu hauetan.

Eta hain zuzen, bietako batek edo biek euskara gutxi zekiten bikote- en prozesuetan, ikerketan atera dugun ondorio bat da bikotekideen arte- an ez dela gertatu *lehenik* euskaraz gaitasun “on” bat eskuratzea *eta gero* bikotean hitz egiten —erabiltzen— hastea. Beraien arteko erabilera ez da etorri, nolabait, gaitasun on bat eskuratzearen *ondoren*, erabileratik bertat- tik baizik.

Bikote bakoitza bere moduan eta bere momentuan errazen zitzaiene- tik hasita euskara erabiltzen joan dira, eta erabilera hori izan da ardatz, bai gaitasuna eskuratzeko eta bai harremanaren ohitura euskarazkoa bihur- tzen joateko. Nolabait laburtzarren: erabilera eta ezagutza..., biak batera.

Prozesua eramateko estilo aldetik bikote bakoitzak berea izan du, noski, baina aipatutakoaren adibide dugu, esaterako, Gasteizen azertu- tako bikoteetako baten aipu hau:

(Gasteiz1)

Nik ya nire burua (kili-kolo) moldatzeko moduan ikusi nuenean esan nizun: gaur hasten da gure bizitzan aro berri bat .../... Izan zen erabakia harremana euska- raz izateko.

3. Prozesuaren zaintza eta intentsitatea

Aldaketa-prozesu hauen deskribapenean askotan agertzen da *zaintza* izen-datu dezakegun jarrera bat bikotekideen aldetik: ingurune euskaldunenetan ere —zer esanik ez erdaldunetan— erdara *beti eskura, toki guztietan* dagoenez, bikote hauek garatu dituzte estrategiak “euskarara mantentzeko” edota “euskarara itzultzeko” elkarrizketetan erdarara pasatzen direnean.

Aztertutako bikoteetan aipatzen da eguneroko bizitzan behin eta berriz suertatzen direla egoerak non, euskaraz ari garelarik, gaztelaniazko erreferentzia bat sartzan dugun —edo “sartzan zaigun” inkontzienteki— edo beste norbait sartzan den gaztelaniaz egiten, edo beste zerbait gertatzen da gaztelaniaz egitera eramaten gaituena.

Beren harremaneko hizkuntza gaztelaniatik euskarara aldatu duten bikoteek jakin dute mekanismo batzuk martxan jartzen egoera horietan euskarara bueltatzeko. Eta mekanismo hauek beren harremanean ongi integratzen. Hori, noski, bakoitzak bere modura egin du, beren harreman motaren, izaeraren eta beste hainbat aldagairen arabera.

Esate baterako, Arrasateko bikote honetan badirudi gizona izan zela “zaindari” rol hau hartu zuena. Horrela aipatzen du bere bikoteak elkarrizketan:

(Arrasate1):
gure etxian, gogor jarri, hau jarri zan [mutilarengatik].

Bada beste puntu bat era horretako “zaintza” batek aldaketa-prozesuak arrakastaz aurrera eramateko izan dezakeen garrantzia iradokitzen diguna: gaur egun 50-60 urte dituzten hainbat bikotek egin ditu era honetako aipamenak ikerketan: “gero, seme-alabak etxetik joan eta egin ginan erlaxatu bezela”, eta gaztelaniaren aldera gehiago egin. Aztertutako kasuetan, “erlaxatze” horrek ez du ekarri finkatutako euskarazko harremana erderatzea, baina protagonisten kontakizunean sumatzen da aldaketa-garaiak beste “intentsitate” bat eskatu ziela, garai hartan jarrera “erlaxatu” hori izan balute agian euskara ez zela nagusituko beraien harremaneko erabileran.

Hain zuzen, aldaketa-prozesuak bolada batean intentsitate handiz bizitu izana da aztertutako bikote askok aipatzen duten beste puntu bat, eta gure ustez “zaintza”ren puntuarekin lotuta egon daiteke. Aztertutako bikote askoren aipuetan ikusten da bolada batean beren egunerokoaren “energia” zati handi bat aldaketa-prozesu honi dedikatu diotela. Eta bolada batez gaia “lehentasun”tzat hartze hau ere prozesuaren gakoetako bat bezala ageri zaigu. Horrela aipatzen du, esaterako, Lasarte-Orian elkarrizketatutako bikotekide batek:

(Lasarte-Oria1)
momentu batean nik nire bizitzan eman nion lehentasuna euskarari, finkatu arte; beste jende batek eman dio beste gauza batzuei.

Ikerketa honen helburu nagusiak:

1) *Hizkuntza ohitura aldaketaren fenomenoak sakonetik ezagutu eta ulertzea, bikote harremanaren eta familia bidezko hizkuntza transmisioaren testuinguruan.*

2) *EAEn beren arteko harremaneko hizkuntza gaztelaniatik euskarara aldatu duten bikoteen kasuen sailkapen bat eskuratzea.*

Pertsona batek bere bikotearekin duen harremanaren hizkuntza aldatzeak badu pisu bat bere bizitzan, ez da azaleko kontu bat.

Denbora aldetik ere, kasuistika zabala da. Aztertutako aldaketa batzuk hilabete gutxitan gertatu ziren, beste batzuk berriz urte batzuk behar izan dituzte.

Bikotekideen artean ez dela gertatu lehenik euskaraz gaitasun "on" bat eskuratzea eta gero bikotean hitz egiten.

Errazen zitzaienetik hasita euskara erabiltzen joan dira, eta erabilera hori izan da ardatz, bai gaitasuna eskuratzeko eta bai harremanaren ohitura euskarazkoa bihurtzen joateko.

4. Arraro eta zail, baina egiten hasitakoan... uste baino errazago

Goiago 2. gakoan aipatu dugu aldaketa egin duten bikote hauetako askotan, harremanaren hasieran bi kideetako batek edo biek ez zekitela euskaraz. Ez da ordea, aztertutako bikote guztien kasua hori. Kasu batzuetan, ohitura aldatu duten bikoteko bi kideak euskaldun zaharrak ziren.

Bikote harremana hasterako euskarazko gaitasuna biek zuten, beraz, kasu hauetan. Baina harremana erdaraz finkatu zen beren artean. Ezau-garri hauetako bikoteetan, harreman hizkuntza gaztelaniatik euskarara aldatu denean, deskribatzen da bolada bat² (bi-hiru hilabetekoa normalean) non "zaila" egiten den besteari euskaraz egitea. Non "arraro" sentitzen zaren, eta sentsazio hori "gogorra" egiten omen da.

Gero, ordea, epe (labur) hori pasata, zailtasun hori oso azkar txikitzen dela, eta sentsazio arraro hori erabat desagertzen dela azaltzen dute ikertutako bikotekideek. Are gehiago, alderantzizkoa izatera ere iritsi da bikote hauetako batzuen kasuan: "zein arrarora pentsatzea lehen erderaz genuela harremana" ren estilokoak esaten dituzte.

Esan genezake, beraz, biek euskaraz egiteko gaitasuna harremanaren hasieratik izanik:

- a) aldatu aurretik ematen du oso zaila/gogorra izango dela
- b) aldaketaren hasieran ere hala da (bolada batean), baina
- c) behin praktikan aldatzen hasita, uste baino errazago egiten da.

Aipu honek berak laburtzen du:

(Tolosa1):
Arraro sentitze horretan, ematen du kristona kostatu behar zaizula... zaila da hizkuntza batetik bestera pasatzea... bueno, zaila emateu! Gero hasten zea eta...

Gaur egun euskarazko gaitasuna eta gaztelaniazko harremana duten bikote askorentzat interesgarria izan daiteke aztertutako bikote hauen esperientzia hurbilagoetik ezagutzea.

5. Seme-alabetatik bikotera, nekez

Seme-alabak dituzten aztertutako bikoteetan, hauek normalean pisu nabarmena izan dute bikoteko euskarazko ohitura finkatzeko edo/eta sendotzeko. Kasu batzuetan, harremanaren hizkuntza aldatzeko nahia abiapuntuan oso sendoa ez bazen ere, seme-alaben biharko etorreraren harira handitu egin da nahi hau. Eta beste batzuetan, behin seme-alabak izanda, beraiekiko euskarazko harremanak finkatu eta elikatu egin du bikotekideen artean euskaraz gero eta gehiago egiteko nahia.

Dena den, kasuen azterketa eginda ondorioztatzen dugu dugu, beraien ohitura oso nabarmen edo erabat aldatu duten bikoteetan, seme-

alabak jaiotzerako bikotekideen arteko harremana euskaraz zela nagusiki, edo aldaketa hasita zegoela. Hau da, seme-alabak jaio *aurretik* aldatu dutela beraien artekoa, edo aldatzen hasi behintzat.

Egindako bikoteen azterketa eginik, ondorengo hipotesia formulatzen dugu, beraz, puntu honi dagokionez: *behin seme-alabak jaiota, bikoteko harreman-hizkuntza aldatzea, seme-alabak jaio aurretik baino askoz zailagoa da*. Besteak beste, behin jaiota lehentasunak beste batzuk direlako eta energia asko haiei bideratu behar izaten zaielako, eta pentsatzekoa da une horretan 3. gakoan aipatutako intentsitatea edo dedikazioa gaiari ematea oso-oso zaila izango dela gehienetan.

Ondorengo bi aipuak horrekin lotuta daude. Gorago esan bezala, beren arteko harreman hizkuntza oso nabarmen edo erabat aldatu duten bikoteak seme-alabak izan *aurretik* gertatu da. Hori hala izan ez denean, hau da, kideen artean lehen aldaketak seme-alabak jaiotzearekin batera edo jaio ondoren hasi direnean, bikotekideen arteko harremanean euskaraz da nagusitzeraz iritsi.

Bi kasuotan, bikote horiek beren harremaneko hizkuntza aldatzeko arrazoi nagusi bezala aipatzen dute *umeekin euskaraz egitea*. Ikerketan jasotakoaren arabera, aldiz, guraso hauek euskara ikasi, ikasi dute. Eta seme-alabei ere egin diete neurri handiagoan edo txikiagoan. Baina bikoteko harremaneko *ohiko hizkuntzan* ez da aldaketa handirik izan:

(Donostia2):

[Oharra: neskak ikasi zuen, gehienbat umeei begira, ordurako ya udalean plaza finkoa zeukan].

Lanean, euskara jakiteagatik eginbehar gehiago duzu, soldata gehiago ez. Motibazioa ez da hortik etorri. Laneko ordutegian liberatuta ikasi nuen; urte t'erdian 3. urratetik 11.era. .../... Gero ja umeekin, lana, dena... ikasten jarraitzeko oso zaila.

eta bigarrena,

(Donostia3):

[Oharra: seme-alabak jaiotzearekin batera hasi ziren ikasten; gero neskak utzi zituen eskolak].

guk nahi genuen pixka bat euskararekin gure bidea familian aurreratzea: gure gurasoek ez zekiten, gu hasi ginen, gure seme-alabek dakite oso ondo, gure bilobek...

HARREMANAREN HIZKUNTZA OHITURA ALDATU DUTEN EAEKO BIKOTEEN SAILKAPENA

Bada sailkapena bera azaldu *aurretik* egin beharreko bereizketa bat. Gorago azaldu dugunez, aztertutako bikote guzti hauek bazuten, ustez, ezaugarri komun bat. Horren arabera egin zen kontaktazioa eta horregatik aztertu zen beren kasua. Gogora dezagun zein zen ezaugarri hori:

aldaketa bat eman da bikoteko kideen arteko **ohiko hizkuntzan**: lehen beraien arteko harremana erabat edo nagusiki gaztelaniaz zen, eta aldaketa baten ondoren, beraien arteko harremana erabat edo nagusiki euskaraz izatera pasa da.

Askotan agertzen da zaintza izendatu dezakegun jarrera bat bikotekideen aldetik.

Beren harremaneko hizkuntza gaztelaniatik euskarara aldatu duten bikoteek jakin dute mekanismo batzuk martxan jartzen egoera horietan euskarara bueltatzeko.

Aldaketa-prozesuak bolada batean intentsitate handiz bizitu izana da aztertutako bikote askok aipatzen duten beste puntu bat, bolada batean beren egunerokoaren "energia" zati handi bat aldaketa-prozesu honi dedikatu diote.

Biek euskaraz egiteko gaitasuna harremanaren hasieratik izanik:

- a) **aldatu aurretik ematen du oso zaila/gogorra izango dela**
- b) **aldaketaren hasieran ere hala da (bolada batean), baina**
- c) **behin praktikan aldatzen hasita, uste baino errazagoa egiten da.**

Azterketak erakutsi digu, ordea, hori praktikan ez zela horrela kasu guztietan. 27 bikoteetatik 7ren kasuan ezin esan ezaugarri hori “betetzen” zenik. Zazpi kasu horietan ez da eman aldaketa *nabarmen* edo erabateko bat harremanean gaztelaniazko ohituratik euskarazko ohiturara. Batzuen kasuan, *betidanik* egin dutelako neurri batean euskaraz eta gaztelaniaz, eta ezin da esan kasu horietan ohituraren aldaketa nabarmen bat egon denik. Eta beste batzuen kasuan, aldiz, gaur egun ere beraien arteko harremana nagusiki gaztelaniaz dela ondorioztatzen delako beren kontakizunetik.

Horrek ez du esan nahi, noski, hizkuntza aldaketa fenomenoari buruzko informazio baliagarriarik atera ez dugunik aipatu zazpi bikoteen azterketatik. Alderantziz. Baina bai esan nahi du ezin genituela sailkatu ikerketan aintzat hartu genuen ezaugarri horren arabera, zazpi kasu horietan betetzen ez zelako.

Ohar hori eginek, ikus dezagun sailkapena bera, eta zein diren definitutako bikote-mota bakoitzaren ezaugarriak.

Bikote motak bereizteko ez da bikotekideen ezaugarri indibidualen hustuketa eta alderaketa egin lan honetan, oinarri gisa hartu baitugu *aldaketaren gakoak*, funtsean ez direla indibidualak, taldekoak, edo kasu honetan, bikoteko harreman mailakoak baizik. Hau da, harreman bakoitzean eratzen den dinamika norberaren ezaugarri indibidualei nagusitzen zaialakoan gaude.

Hori horrela, euskara beraien artean erabiltzeari dagokionez bikote hauek egin dituzten *prozesuak* edo *bideak* aztertu eta alderatu dira bikote motak bereizteko ere. Modu honetan, ondorengo hiru bikote motak bereiz ditzakegu beren arteko harremanaren hizkuntza gaztelaniatik euskarara aldatu duten EAEko bikoteen artean: *Berreskuratu* motako bikoteak, *Eskuratu* motakoak eta *Euskaratu* motakoak.

Ikus dezagun zerk ezaugarritzen dituen bereizi ditugun hiru bikote-mota hauek edo hiru prozesu-mota hauek:

— **1.- Berreskuratu:** bikote hauetan euskarazko gaitasuna hasieratik zuten bi kideek, eta horrek bereizi egiten ditu bikote hauek beste bi motetatik. Bikote hauek beren arteko harremana gaztelaniaz finkatu zuten hasieran, baina gero uneren batean erabaki egin zuten aldatzea, eta *hortik aurrera euskaraz* egitea. Eta erabaki hori praktikara eramaten dute. Aurrez euskarazko gaitasuna izanik, euskarazko ohitura finkatzeko deskribatzen den prozesua beste bietan baino laburragoa da mota honetako bikoteetan, eta beste biekiko ezberdina aspektu askotan.

— **2.- Eskuratu:** harremana hasi zenean bikotekide bat edo biak ez ziren euskaraz hitz egiteko gai. Hala ere, bikote hauetan hasieratik bazegoen guk “aldaketaren hazia” bezala izendatu dugun zerbit. Hau da: harremanaren hasieratik, bikotekide biek edo batek *argi zuen*

bere bizitza —eta tartean, harremana bikotearekin— gerora begira euskaraz izatea nahi zuela. Hala irudikatzen zuen hasieratik. Esan genezake, nolabait, hizkuntza aldatzeari buruzko hausnarketa “aurrez egina” zegoela bikote hauetan. Ondorioz, mota honetako bikote askotan ez da inoiz harremaneko hizkuntza aldatzeari buruz “erabakirik (espliziturik) hartu”. Praktikan, ordea, hasieratik eman dira pausoak harremana euskaratzen joateko, eta pausoka-pausoka beren arteko harremana erabat edo nagusiki euskaraz izatera pasa dira.

— **3.- Euskaratu:** mota honetako bikoteetan, harremanaren hasieran nolabaiteko nahia badago euskararekin, baina aldiz, ez dago ez bi bikotekideen euskarazko gaitasunik ez eta “aurrez egindako hausnarketarik” ere. Bikote hauek ez zuten irudikatzen harremanaren hasieran beren bizitza edo harremana gerora begira euskaraz izango zenik, nahiz eta euskara ikasteko interesa izan edo euskara gustukoa izan. Bikote mota honetan, euskara ikasteko pausoak eman dira lehenik (kide batek edo biek, kasuaren arabera), eta pauso horiek eman ahala, beren bizitza eta harremana euskaraz izateko nahia eskuratzen joan dira, nahi hori “bere” egiten. Prozesu horretan, mota honetako bikote gehienek une batean erabaki egin dute beraien artean euskaraz ahalik eta gehien egiten joatea, nolabait, eta prozesu horrekin aurrera jarraitu dute. Gero eta gehiago joan dira euskaraz egiten, beraien arteko harremana erabat edo nagusiki euskaraz izatera iritsi arte.

Behin seme-alabak jaiota, bikoteko harreman-hizkuntza aldatzea, seme-alabak jaiotatik baino askoz zailagoa da. Behin jaiota lehentasunak beste batzuk direlako eta energia asko haiei bideratu behar izaten zaielako.

BIBLIOGRAFIA

- De Bono, E. (1996): *Lógica fluida. La alternativa a la lógica tradicional*. Barcelona: Paidós.
- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Soziolinguistika Klusterra (2009). *Bikoteen artean hizkuntza ohituren aldaketa. Ikerketa-lana. Ikerketaren emaitzak eta ondorioak*. Argitaratu gabeko txostena.
- Egizabal, Diego, Huegun, Axier eta Jauregi, Pello (2004). “Kuadrillategi egitasmoa”. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 53 (103-111)
- Jauregi, Pello (1998) *Berezko taldeak euskalduntzeko ikas estrategia*. Doktorego tesia. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Gendlin, E. (1999): *A Process Model*. Argitaratu gabea. New Yorkeko Focusing Institutereko papera.
- Lewin, K. (1988): *La teoría del campo en la ciencia social*. Barcelona: Paidós
- Maturana, H. eta Bloch, S. (1996): *Biología del emocionar y Alba emoting*. Santiago de Chile: Dolmen.
- Maturana, H. eta Varela, F. (1999): *El árbol del conocimiento: las bases biológicas del conocimiento humano*. Madrid: Debate
- Watzlawich, P.; Weakland, J. eta Fisch, R. (1985): *Cambio: formación y solución de los problemas humanos*. Barcelona: Herder

***Une batean erabaki egin
dute beraien artean
euskaraz ahalik eta
gehien egiten joatea,
nolabait, eta prozesu
horrekin aurrera jarraitu
dute. Gero eta gehiago
joan dira euskaraz egiten,
beraien arteko harremana
erabat edo nagusiki
euskaraz izatera iritsi
arte.***

OHARRAK

1. Ikerketarako hautatutako EAEko hiriburu eta Udalerriak, bakoitzaren euskaldunen proportzioa (EUSTAT, 2001) eta bakoitzean ikertutako bikote-kopurua ondorengoak dira: Balmaseda, %12 (0); Laudio, %22 (2); Irun, %32 (0); Durango, %45 (0); Lasarte-Oria, %37 (2); Bilbo, %16 (3); Donostia, %35 (3); Gasteiz, %15 (3); Mungia, %55 (2); Zarautz, %71 (2); Hernani, %55 (2); Igorre, %73 (0); Tolosa, %64 (2); Beasain, %58 (2); Arrasate, %56 (2); Lekeitio, %86 (0) eta Bermeo, %76 (2).
2. Pare bat kasutan hiru hilabete inguruko bolada aipatzen da. Erreferentzia gisa balio du, baina pentsa daiteke hau aldakorra izango dela kasutik kasura.